

Euskadiko Liburutegia kolokan

Urriaren 26ko 11/2007 Legean, Euskadiko liburutegiei buruzkoan, laugarren xedapen gehigarriak adierazten du liburutegien legea indarrean sartu eta gehienez ere 18 hilabetera eratuko dela Euskadiko Liburutegia. Hortaz, 2009ko maiatzaren 19rako sortua eta arautua izan behar zuen legea.

Badaramat bi urte baino gehiago gai honi buruz paperezko prentsan idatzi barik, eta ikustean Gobernu berriak ere ez daukala asmorik Euskal liburutegia sortzeko, animatu naiz honen gainean lerro batzuk idaztera, nahiz eta ideia gehienak ez diren berriak, nik neuk azken urte hauetan behin baino gehiagotan plazaratu baititut.

Badakigu denok Eusko Alderdi Jeltzalea agintean izan den urteetan ez dela gai izan gainontzeko autonomia erkidegoetan aspaldi sortutako erakunde kultural hau sortzeko. 1990. urtean Liburutegi Nazionalaren Sistema arautu zuen, Euskal Kultura Ondareari buruzko legea indarrean jartzearekin batera. Gehienok espero genuen Euskal Liburutegi Nazionala ere abian jarriko zutela, baina ez zen horrela izan. 1997ko urriaren 2an sortu zen Joana Albret Bibliotekonomia Mintegia, aldarrikapen jakin eta temati bat aurrera eramateko, Euskal Liburutegia sortzeko asmoarekin, hain zuzen ere. Kulturako arduradun politikoekin hamaika elkarrizketa eduki ondoren, eta komunikabideetara idatzi ugari bidali eta gero, azkenean, 2007. urtean Euskadiko Liburutegien gainera Legea indarrean jartzea lortu genuen.

Lege honekin ere Joana Albreteko kideak kritiko samarrak izan ginen. Lege-proiektuari hamaika zuzenketa egin genizkion, arrakasta handirik eduki gabe. Baten bat aipatzearen, izenari dagokionez, egokiago iruditu zitzaigun Euskal Liburutegia, edo Euskal Liburutegi Nazionala, Euskadiko Liburutegia baino. Nafarroa eta Iparraldearekiko lotura ekonomiko, geografiko, sozial, eta kulturalak kontuan edukita, eta batik bat hizkuntza bera izanda, garrantzitsutzat jo genuen proiektu batzuk elkarrekin egin ahal izatea, eta hori legean espresuki jaso ez izana gogor kritikatu genuen.

Azken lau urte hauetan EAJ ibili da Euskadiko Liburutegia kokatu nahian. Hasieran Donostiako Tabakaleran 1.000 m² utzi zuten erakunde horretarako. Ulergaitza egin zitzaigun 25 urte itxaron ostean, horrelako lardaskeriarekin ateratzea. Gero etorri zen Eusko Jaurlaritzak, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Donostiako Udalak sinatutako hitzarmena. Ez bata ez besteak ez zeukan ez hankarik ez bururik. Lehenengoan langileak ere ez baitziren sartzen emandako leku eskasean, eta bigarrenean, besteak beste, ez zeukalako zentzurik gipuzkoar guztiak zerbitzurik gabe uztea, Koldo Mitxelena Kulturunea Euskadiko Liburutegi bihurtzean.

Gauzak horrela, Gobernura PSE iritsi da, eta hara non, heldu bezain laster, Blanca Urgell Kulturako sailburuak adierazi duen, krisi ekonomikoa dela eta, legegintzaldi honetan ez dela azpiegitura berririk izango. Hilabete batzuk igaro ondoren antzerako zerbait adierazi zuen elkarrizketa batean sailburuordeak. Ondo hasi dira! Gureak egin du! Ez ditut errepikatuko Joana Albreteko taldekideok askotan Euskal Liburutegiaren alde prentsan beste artikulurik batzuetan eman ditugun argudio teknikoak. Soilik esango dut alde batetik, aipatutako

urriaren 26ko 11/2007 Legean, Euskadiko liburutegiei buruzkoan, laugarren xedapen gehigarriak adierazten duela liburutegien legea indarrean sartu eta gehienez ere 18 hilabetera eratuko dela Euskadiko Liburutegia. Hortaz, lege 2009ko maiatzaren 19an, dagoeneko duela 7 hilabete, sortua eta arautua izan behar zuen. Beste alde batetik, krisi ekonomiko batean sartuta gaudenez, proiektu kultural honen sorrerak milioi asko inbertitzeko eta lanpostu ugari sortzeko aukera emango digu, lehendabizi, eraikuntza egiteko, eta gero, langile finkoen lanpostuak sortzeko.

Azkenik, ikus ditzagun, zertzelada batean, zer-nolako eginkizunak beteko dituen Euskadiko Liburutegiak: liburutegi sistemaren buru izango da eta arduratuko da Euskadin eta euskararen hizkuntza-esparruan argitaratu edo ekoiztutako lanaz; ahaleginak egingo ditu Euskadiko bibliografia-ondarea gordetzeko eta zabaltzeko; Autonomia Erkidegoko bibliografiarako eta ikerketarako zentroa izango da, baita euskal ondare digitalaren egoitza ere; nazioarteko bibliografia-arauak egokituko ditu; Euskadiko liburutegien eremuko erreferentzia izango da...

Euskadiko Liburutegiak betebeharrak hauek eta aipatu ez ditudan beste batzuk izango ditu Euskal Erkidegoko lurralde osoan. Eginbehar hauek duintasunez aurrera eramateko Administrazioak honako baldintza hauek derrigorrean bete behar ditu: lehenik, 11/2007 Legean datorren bezala (IV. titulua, 28. artikulua), Eusko Jaurlaritzako Erakunde Autonomia sortzea. Bigarrenik, erakunde honen eskumen guztiak Eusko Jaurlaritzari atxikiak izan behar dira, biblioteca guztien buru eta koordinatzaile izan dadin. Hirugarrenik, Euskadiko Liburutegirako eraikuntza berria sortu behar da, beste arrazoi batzuen artean, euskal kultura komunitatearen ikurra eta erreferentzia izan dadin. Gainontzeko autonomia erkidegoetan aspaldi sortuta daude: Andaluzian 1994an (Granada), Aragoian 1990ean (Zaragoza), Errioxan 1988an (Logroño), Extremaduran 1995ean (Badajoz), Gaztela eta Leonen 1989an (Valladolid), Gaztela-Mantxan (Toledo), Kantabrian 1999an (Santander), Katalunian 1939an (Bartzelona), eta Madrilan 1989an (Madril). Laugarrenik, aurrekoa bezain garrantzitsua da azpiegitura egokia bermatzea, kasu honetan ere ez dago ezer asmatu beharrik, aldamenekoek dauzkaten baliabide materialak eta giza baliabideak begiratzea besterik ez baitauek. Adibidez, Nafarroan bukatzeaz dagoen Nafarroako Liburutegia, non honezkero 14.000.000 euro inguru inbertitu baitituzte, 24.000 m² edukiko duen eraikuntza berria. Bosgarrenik, lekua gutxienezkoa izan arren, Liburutegi Sistemaren buru izango den erakunde honetarako lekurik aproposena Gasteiz dela uste dut; alde batetik, Gasteiz Euskadiko hiriburu administratiboa delako eta, bestetik, Gasteizen egoteak ahalbidetuko duela Euskadiko biblioteken sareko irizpide estrategikoak, politikoak eta teknikoak gauzatzea.